



Arrakala
Kashbad
Bonberenea Ekintzak, 2014

Sasoi betean berriro jaio

90EKO HAMARKADAN, ordura arteko punk/heavy dikotomiak eztanda egin zuen eta sormen askeagotik askoz errekastru gehiago isurtzen hasi ziren. Proposamen berri haiek detektatzen eta ezagutzera ematen lan handia egin zuten Fermin Muguruzak eta Esan Ozenki diskoetxeko lan-taldeak. Ahots bereziko neska txiki bezain kementsuak gidatuta, Jingo de Lunch eta Bad Brains taldeetatik edaten zuen Kashbad boskote gaztea izan zen horietako bat, maketa kaleratu berritan.

Negu Gorriak, Banda Bassotti, Radio Bemba eta halako talde handiekin zuzenean aritu ostean, Egin Txotx lehiaketako finalera heldu ziren 1996an. Urte berean *Kashbad* (Esan Ozenki) izeneko diskoa argitaratu zuten. Hardcorea eta reggaea, arrakastatsua suertatu zen emaitza, *Hegaz* singela tarteko. 1997an gitarra bakarrarekin laukote bihurtu eta *Distantzia* (Esan Ozenki) kaleratu zuten. Ordurako abiadura apur bat moteldu eta intentsitatea hartu zuten, nahiz eta oraindik tarteka reggaeari eutsi, hardcoretik harago irekita. 1999an, hirugarren diskorako kantuak idazten ari zirela, Gorka taldekidea atxilotu zuten, eta espetxeratu zutenean, taldearen etorkizuna kolokan gelditu zen, baina Lisabö taldeko Karlos Osinaga gehitu zitzaizen, eta *Hesiak* (Esan Ozenki) plazaratu zuten. Ordurako post-rockaren irmotasun eta iluntasuna barneratuta zuen taldeak, baita intentsitatea ere. Gorka bueltatu ostean, epe laburrera agur esan zuen taldeak. Taldekideak beste hainbat proiektutan murgilduta ibili ziren (Sorkun, Fermin Muguruza, Peiremans+, Lau Itzal, Trumbo...). 2007an hiru kontzertu soilik emateko elkartu zen Kashbad.

Orain bueltan dator taldea berriro *Arrakala* (Bonberenea Ekintzak) lanarekin eta dozenaka emanaldi egin dituzte. Bederatzi kantuz osatutako diskoan giro eta estilo dezente batu dira, baina guztiek taldearen zigilua dute. Karlos Osinaga aspaldiko bide-



lagunarekin grabatu dute eta emaitza oso landuta eta mimatuta dago. *Malabareak* riff potente, ia kiribilekoak, zabaltzen du lana eta Sorkunen ahotsa protagonista dela, erritmo joko aberatsak ditu. *Aita urreak* Quotsa ekarri dit gogora, stoner oso irekia edo estilo handiko rock gogorra, oso dotorea. *Arrakala* spotifirako hit-a da, goxo jaio eta intentsitatez izugarri hazten den pieza ederra, indartsua. *Lokatz siderala* xuxurlatuz atsedean hartuko dugu. *Hortaz gu* kantan erritmo tribalek instrumentuei askatasun osoa ematen diete. *Okila* berezia da: stonerretik eta post-punketik pasata, garrastu eta biderkatzen dena, hau ere indartsu. *Nor gebiako* rock irmo eta jostaria da eta iluntzen badoa ere, taldearen marka oso presente duena. *Erraiak*-ek punk-rocketik asko dauka, indartsutik, ilunetik eta arrisku sentsaziotik. Bukatzeko, 90eko hamarkadan Gasteizko Gaztetxearen alde grabatutako *Zuen eskaparateetan* sutua berreskuratu dute: taldea zapalgailu rockero bihurtuta, zirrikitu edo arrakalarik utzi gabe, eta Sorkunen ahotsa gainetik abestu-errezitatu nahian. Itzela! ■

Iker Barandiaran

